

ETXE BETE▲

GELA▲
BAT▲
NORBERARENA▲

2022-2023

ZER DA GELA BAT NORBERARENA?

Etxe beteak 'Gela bat norberarena' izeneko egoitza artistikoa sortu du Virginia Woolf-en omenez. 2017 eta 2018an Naiara Carmona eta Estibaliz Urresola artistekin abiatu genuen egoitza artistikoa, eta 2022-2023 ikasturtean berriz antolatu dugu berrikuntza ugariarekin.

2022-2023 EDIZIOA

Proiektu adatorren ikasturtean hazi egingo da eta **gela fisiko bat** eskainiko zaio Bilboko eraikin enblematiko batean aukeratuari. Gainera, aurten ere aukeratuako parte-hartzaileak **15.000 euro**ko laguntza ekonomikoa jasoko du. Aurten proiektuaren garapenerako **mentoretzen** kopuruak ere gora egin du: zuzendaritza, gidioa, ekoizpena, soinua, zuzendaritza artistikoa, jatorrizko musika edo argazki-zuzendaritza landuko dira besteak beste.

Gainera, egoitza artistikoaren barruan, parte-hartzaileek **bidelaguntza feminista** edukiko dute. Zaintzak gogoan edukiz, zineman lan egiteko formula feministak bilatuko dira.

Berrikuntza gisa, beren proiektuak garatzen ari diren **euskal emakume zinemagile talde bat gonbidatuko** dute, laguntza-talde sortzaile gisa aukeratuako zinemagilearekin batera parte hartzera. Gonbidatuak sortzaile horiek ere parte hartuko dute mentoretzetan, eta **Valerie Delpierre** (ekoizpena) edo **Eva Valiño** (soinu-sorkuntza) bezalako profesionalak izango dituzte.

Mentoretzak **2022ko urritik eta 2023ko ekainera** bitartean burutuko dira, aukeratuako zinemagilearekin eta gonbidatuak sortzaileekin bildu ondoren adostutako egutegian. Egoitza horren ezaugarri nagusietako bat malgutasuna izango da, eta horregatik, sortzaileen beharren arabera egokituko da ikastaroa.

BALDINTZAK

Egoitza artistikoa **adin, nazionalitate eta esperientzia guztietako emakumeei** zuzenduta egongo da, baldintza nagusia hasierako **garapen-fasean film luze baten** proiektua egiteko ideia edukitzea da. Dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez bidali ahal izango da.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Pdf bat lacasallena.bilbao@gmail.com helbidera bidali. Behean aipatzen den informazioarekin eta gehienez 30 orrialdeko luzapenarekin (max 20MB).

- Zinemagilearen eta haren aurreko lanen aurkezpena, ikusteko estekekin.
- Interes karta bat, Gela bat norberarena egoitza artistikoan parte hartzeko nahiaren azalpenarekin.
- Proiektuaren aurkezpena: sinopsi labur bat, sortzaileak film hau sortzeko duen beharra, egoitzan garatu beharreko sormen-bideak eta 2022ko urritik 2023ko ekainera bitarteko sormen-egutegia biltzen dituenak. Sortzaileak berarentzat garrantzitsua den informazioa gehi dezake balorazio taldeak bere lana hobetu ulertu dezan.

- Azkoz jota bost minutuko iraupena duen bideo baterako esteka, egileari eta proiektuari buruzko idatzizko dokumentazioan eskeintzen ez denaren deskribapen gehigarriarekin.
- Gidoi edo tratamenduaren lehen bertsio bat aurkeztu ahal izango da, baina ez da hautaketa-taldeak baloratuko duen dokumentazioaren zatia izango.

EGOITZA

Ikastaroa **hiru zatitan** banatuko da.

1. Lehena sortzaileek aukeratutako gaiak ikertzeko izango da.
2. Bigarren multzoaren helburua gidoiaren lehen edo bigarren bertsioa sortzea da, proiektu bakoitzaren beharren arabera.
3. Hirugarrenaren helburua proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzea eta proiektu bakoitzerako ekoizle edo laguntzaileak bilatzeko estrategiak baloratzea da.

Eskatutako dokumentazioa baloratu ondoren, ikus-entzunezkoetan esperientzia duen emakume-batzorde batek zinemagilea aukeratuko du, eta hark 15.000 euroko diru-laguntza jasoko du eta Bilbon bizitzeko aukera ere emango zaio.

LABURPENA

Gela bat norberarena ekoitza artistikoak honako hauek eskaintzen du:

- Logela bat bederatzi hilabetez Bilboko erdialdean.
- 15.000€ hautatuko pertsonarentzat bere film luzea garatu dezan.
- Zuzendaritza, gidoi, ekoizpen eta soinu mentoretzak besteak beste.

INFORMAZIO GARRANTZITSUA:

- Proiektuak aurkezteko epea: 2022ko uztailaren 27tik irailaren 15era arte (14pm).
- Egoitzaren datak: 2022ko urriaren 17tik 2023ko ekainaren 16ra arte.

Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan helbide elektroniko honen bitartez:

lacasallena.bilbao@gmail.com